0.1.1.4.1.2./3.15.

Bilbaon, 1952 - X - 10.

Arizmendi iaunari, Mondragoen. -

Ene adiskide maite hori: aspaldion zuri idaztekotan nengoan, ezer barri zuzenik izan eztodan arren. Eta gaur, nagiak zerbaixka alde batera iaurti-ta, hemen diardut zuri zegozer esan nairik.

Batez ere, berandu izanik alan bere, arako itzaldiagaitik nire poz-agurra agertu nai neuskizu, entzun dodanez agerkailu nabari bateako aukeratua baizagoz: Alfonso Ekis-en domiñea-edo zeure paparrean ezarteko gai eta duin. Ori ondo! Atsegingarri da beti be, lan egiten aspertzen eztiranei dagokien sari eta agergarria eskeiñi eta emotea. Egun eder hori lenbailen heldu dedilla, eta guztiok ospatu ahal izan daigula.

Orain iruzpalau aste, Etxebarria iaun sendagilles eta onen emazte andereaz egon nintzan itz-aspertu bat egiñaz geure erritxu maitean. Osasunez ondo-edo zabiltz, ortaz ezertxu bere aipatzen eztakizulako.

Hemendik zer barri? Eztakit ba, gauz handirik ez. Iakingo dozu Euskaltzaindiko Urgazle edo korrespondiente egin ginduena aurtengo udabarrian. Oraintxe gomutauten dot alkarregaz azkenez egon giñandan, orixe igarri edo iragarri zeunstana; eta egiak urten iok!! Aita Villasanteren hitzaldi ospetsuaren ondoan, gure asmoa, - literatura euskalkia laphurdiarazko izan behar duena-- lekhu zabaltzen eta gogoak

irabazten ari da. Azken Boletie-ean (Amigos del Pais) dakuskezunez, hitzaldiaren aurkezpena Irigarai jaun mirikuak egin dau, eta hunek ere Axular handia ipini dau -antzinakoek ipini zuten bezala- eredu, maisu eta ahantz-emailetzat. Bidasoaz bertzealdekoak ere, gureganatzen ari dira. Egon be, eztago bide egokiagorik. Mendez mende, eta gizaldi onetan bertan ere, guztiak etsi dabe (?)entzat Axular. ?Zergaitik ez, bada, behin betiko eredutzat hartu? Gaiñera, orain ere, lanik eta nekherik gehien hartu behar dutenak, bizkai-semeok gara; gipuzkeratik Axular-gana aditz-jokera batzuk izan ezik alde handirik ezpaitago. Bai, egia da H horrek buruuste handiak emaiten derauzkiona bati baiño gehiagori. Ezta, ordea, hainbesteko gauza zailla. Hirur orrialdetan ipini litekez h daukaten hitzok. Ezta, beraz, horren arlo zaila.

Zuk, zer diñozu ? Amaika zeregiñen mende eztuzu, zinez, lehengo arlo eta sorho atseginetan ibiltzeko. Karta hau, edo gutun hau, bizkaieraz hasi dut, eta ikhusten duzunez, laphurdieraz bukhaturen dut. Nik bethi zaletasun bizia nuen euskalki hori ikasteko, eta lehendabizi ukhan dudan haukera, eztut, ez neholatan galdu. Inoiz irakurri duzua Axularren prosa goxo, thinko ta bethea? Zoragarririk ezer baldin ba dugu gure mintzairan, horixe duzu, egiatan. Hunen hirur agerraldi eginak dire, bainan lenengoa da hark berak egina eta zuzendua. Bertzeetan zerbait aldakuntza egin zuten. Halarik ere, bakharra dugu.

Agustin-en barririk? Joan dan hilean hemen egon zen egun batez, eta arratsaldean harekin ibili nintzen. Nire haurrak batzuk itsasaldean dira, oraindio; nagusia hemen, eskolara hasia baita.

Parkatu lerro hok aspergarria ba zaizkitzu; bainan eztut uste. Goraintziak zure ta nire adiskidiei, batez ere zure etxekoei. Agur,

Eusebio